# BOLETÍN Nº 149 - 4 de diciembre de 2009

- 2. Administración Local de Navarra

2.2. DISPOSICIONES Y ANUNCIOS ORDENADOS POR LOCALIDAD

## MENDIGORRÍA

## Aprobación de la ordenanza reguladora de la concesión de tarjetas de estacionamiento para personas con discapacidad

El Ayuntamiento de Mendigorría, en sesión celebrada el día 3 de abril de 2009, aprobó inicialmente la ordenanza reguladora de la concesión de tarjetas de estacionamiento para personas con discapacidad.

Publicado el acuerdo de aprobación en el Boletín Oficial de Navarra número 56, de fecha 8 de mayo de 2009, y transcurrido el plazo de exposición pública sin que se hayan producido alegaciones, se procede, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 325 de la Ley Foral 6/1990, de la Administración Local de Navarra, a la aprobación definitiva de dicha ordenanza en el Pleno celebrado el día de de, disponiendo la publicación de su texto íntegro, a los efectos procedentes.

Mendigorría, 10 de noviembre de 2009.-El Alcalde, Javier Osés Zúñiga.

### ORDENANZA REGULADORA DE LA CONCESIÓN DE TARJETAS DE ESTACIONAMIENTO PARA PERSONAS CON DISCAPACIDAD

Artículo 1.º Objeto.

La presente ordenanza tiene como base regular la concesión de tarjetas de estacionamiento para personas con discapacidad, de conformidad con la Recomendación 98/376/CE del Consejo de Europa de fecha 4 de junio de 1998, y al objeto de que personas con discapacidad puedan aparcar su vehículo sin deber de realizar a continuación grandes desplazamientos.

Artículo 2.º Requisitos.

Para tener derecho a la concesión de una tarjeta de estacionamiento será necesario cumplir con los siguientes requisitos.

2.1. Conductores con invalidez permanente:

2.1.1. Estar en posesión el interesado minusválido del correspondiente permiso de conducción en vigor.

2.1.2. Sufrir una minusvalía que les origine una movilidad reducida, debiendo acreditar el siguiente extremo:

-Certificado de hallarse afecto por una minusvalía superior al 33% y en el que figure la existencia de discapacidad para utilización de transporte público colectivo y que la puntuación del baremo para

determinar la existencia de dificultades para utilizar transportes colectivos no sea inferior a siete puntos.

2.2. Familiares convivientes o cuidadores de personas con invalidez permanente:

2.2.1. Estar en posesión el familiar conviviente o cuidador del correspondiente permiso de conducción en vigor.

2.2.2. Documentación del solicitante sobre vinculación familiar o de prestación de cuidados al minusválido sobre el que se pide la concesión y la existencia de convivencia con el mismo, en su caso.

2.2.3. Que el familiar a quien presten los cuidados sufra una minusvalía que le origine una movilidad reducida, debiendo acreditar lo siguiente:

-Certificado de hallarse afecto por una minusvalía superior al 33% y en el que figure la existencia de discapacidad para utilización de transporte público o colectivo y que la puntuación del baremo para determinar la existencia de dificultades para utilizar transportes colectivos no sea inferior a siete puntos.

Artículo 3.º Proceso de solicitud.

Las demandas de solicitud de tarjeta se efectuarán en las oficinas municipales, debiendo adjuntar a la instancia los certificados que se especifican en la base segunda, permiso de conducción en vigor, documentación del vehículo y dos fotografías, tamaño carné, en color.

Artículo 4.º Normas de funcionamiento.

a) Cuando se utilice esta tarjeta, deberá colocarse en la parte delantera del vehículo de forma que el anverso de la tarjeta sea claramente visible desde el exterior para su control.

b) Terminado el plazo de vigencia, perderá su validez y deberá ser entregada en el Ayuntamiento, para su renovación si procede.

c) El vehículo portador de la tarjeta, podrá estacionar sin limitación de horario en los lugares reservados y señalizados para minusválidos.

d) Asimismo, podrá estacionar por un tiempo limitado, en los lugares reservados para carga y descarga. En lugares donde está prohibido el estacionamiento mediante señales, y en aquellos otros en donde se autoricen expresamente.

e) En ningún caso podrá estacionar el vehículo amparándose en esta autorización: Cuando no transporte al titular de la tarjeta. En los pasos de peatones. Sobre la acera. En zona señalizadas como parada prohibida. En carriles reservados al transporte público y en general en aquellos lugares en que se obstaculice gravemente el tránsito, tanto de vehículos como de peatones.

f) Cuando se estacione en una localidad diferente a la que expidió la tarjeta, deberá atenerse a las normas establecidas en dicha localidad.

g) Cuando por cualquier causa, se tenga que dejar de hacer uso de la tarjeta, deberá ser entregada en el Ayuntamiento donde se expidió comunicando el motivo.

h) En caso de robo o extravío se deberá comunicar tal extremo a este Ayuntamiento.

Artículo 5.º Infracciones y sanciones.

Constituyen infracciones administrativas:

5.1. El falseamiento de datos, certificados, etc., que se presente para la obtención de la tarjeta, así como la ocultación de otros que impidieran su concesión.

5.2. Igualmente, la utilización sin concesión administrativa de tarjetas o la utilización de tarjetas de terceras personas, o su reproducción de forma fraudulenta por cualquier medio.

Serán responsables de las infracciones los autores de falseamiento y los peticionarios de concesión de tarjetas.

Las infracciones de sanciones se impondrán, previa incoación del oportuno expediente sancionador, en el que en todo caso se dará audiencia a los interesados antes de dictar resolución y que será tramitado conforme a lo dispuesto en el reglamento de potestad sancionadora.

## DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Para la renovación de las tarjetas en vigor a la fecha, se deberán acreditar los requisitos enumerados en la presente ordenanza.

Código del anuncio: L0926457

En Mendigorría a 27 de septiembre de 2016.

## ***Modificación de la Ordenanza reguladora de la concesión de tarjetas de estacionamiento o/y acceso restringido para personas con discapacidad y movilidad reducida***

El pleno del Ayuntamiento de Mendigorría en sesión ordinaria de fecha 21 de octubre de 2016 acordó la aprobación inicial de la modificación de la Ordenanza reguladora de la concesión de tarjetas de estacionamiento o/y acceso restringido para personas con discapacidad y movilidad reducida.

Lo que se sometió a información pública por un período de treinta días hábiles desde la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Navarra número 212, de fecha 3 de noviembre de 2016, y en el tablón de edictos del Ayuntamiento, para que los vecinos o interesados legítimos pudieran examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos u observaciones.

El acuerdo de aprobación inicial pasa a ser definitivo al no haberse formulado reclamaciones, reparos u observaciones:

"Modificación de la Ordenanza reguladora de la concesión de tarjetas de estacionamiento o/y acceso restringido para personas con discapacidad y movilidad reducida."

Se incorpora una disposición adicional primera del tenor siguiente:

"Se podrá conceder un permiso para las personas con discapacidad, exclusivamente para el acceso a la zona restringida de las escuelas de Mendigorría, a aquellos interesados que acrediten una minusvalía que les imposibilite el movimiento para acompañar a sus hijos menores a la Escuela, pero que no puedan justificar minusvalía para obtener tarjeta ordinaria.

Este permiso será renovable cada 3 meses."

Mendigorría, 22 de diciembre de 2016.–El Alcalde-Presidente, Iosu Arbizu Colomo.

Código del anuncio: L1614786

# 149. ALDIZKARIA - 2009ko abenduaren 4a

- 2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA
  - 2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

MENDIGORRIA

## *Ordenantza, ezgaitasuna duten pertsonei aparkatzeko txartelak ematea arautzen duena. Onespena*

Mendigorriko Udalak, 2009ko apirilaren 3an egin bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Ezgaitasuna duten pertsonei aparkatzeko txartelak ematea arautzen duen ordenantza.

Onespenaren erabakia 2009ko 56. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, maiatzaren 8an, eta jendaurreko epean inork ez du alegaziorik aurkeztu; hortaz, ordenantza hori behin betikoz onetsi da eta osorik ematen da argitara, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Mendigorrian, 2009ko azaroaren 10ean.-Alkatea, Javier Osés Zúñiga.

## ORDENANTZA, EZGAITASUNA DUTEN PERTSONEI APARKATZEKO TXARTELAK EMATEA ARAUTZEN DUENA

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honek ezgaitasuna duten pertsonei aparkatzeko txartelak ematea arautu gogo du, Europako Kontseiluaren 1998ko ekainaren 4ko 98/376/CE Gomendioarekin bat, ezgaitasuna duten pertsonek ibilgailua aparkatu ahal dezaten, ondoren joan-etorri handirik egin beharrik gabe.

2. artikulua. Betebeharrak.

Aparkatzeko txartelaren eskubidea izateko, beharrezkoa da baldintza hauek betetzea.

2.1. Baliaezintasun iraunkorra duten gidariak:

2.1.1. Elbarri interesdunak indarra duen gidabaimena izan beharko du.

2.1.2. Mugikortasuna murrizten dion elbarritasuna izatea, eta alderdi hauek egiaztatu:

-%33tik goitiko elbarritasunak jota egotearen ziurtagiria, non garraio publiko kolektiboa erabiltzeko ezgaitasuna aipatuko baita eta garraio kolektiboak erabiltzeko zailtasunen baremoko puntuazioa zazpi puntukoa dela, gutxienez ere.

2.2. Behin betiko baliaezintasuna dutenen ahaide bizikideak edo zaindariak:

2.2.1. Zaintzaileak edo ahaide bizikideak indarra duen gidabaimenaren jabe izan beharko du.

2.2.2. Eskatzailearen dokumentazioa, elbarriarekin duen ahaidetasuna frogatzen duena, edo hura zaintzen duela erakusten duena; baita harekin bizi dela ere, hala denean.

2.2.3. Zaindutako ahaideak mugikortasuna urritzen dion elbarritasuna izatea; hori dela eta, honako hau egiaztatu beharko da:

-%33tik goitiko elbarritasunak jota egotearen ziurtagiria, non garraio publiko kolektiboa erabiltzeko ezgaitasuna aipatuko baita eta garraio kolektiboak erabiltzeko zailtasunen baremoko puntuazioa zazpi puntukoa dela, gutxienez ere.

3. artikulua. Eskatzeko prozesua.

Txartelen eskariak Udalaren bulegoetan eginen dira. Eskabideari bigarren oinarrian zehaztutako ziurtagiriak erantsiko zaizkio, indarra duen gidabaimena eta ibilgailuaren agiriak, baita karnet tamainako bi argazki ere, koloretan.

4. artikulua. Funtzionamendu arauak.

a) Txartela erabiltzen denean, ibilgailuaren aurreko aldean jarriko da, txartelaren aurrealdea aise ikusteko moduan dela, kanpotik kontrolatzeko.

b) Indarraldia amaituta, ez du gehiago baliorik izanen, eta Udaletxera eraman beharko da, berritu beharrik badu.

c) Txartela daraman ibilgailua elbarrientzat erreserbatu eta seinalizatuta dauden tokietan aparkatu ahalko da, ordu mugarik gabe.

d) Halaberean, zamalanetarako tokietan aparkatzen ahalko da, ordutegi mugatu baten barrenean. Aparkatzeko debekua seinale bidez adierazten den tokietan, eta berariazko baimena duten bertzelakoetan.

e) Ondoko kasuetan, ezin izanen da inola ere ibilgailua aparkatu baimen honen babesean: txartelaren titularra eramaten ez duenean. Oinezkoen pasabideetan. Espaloiaren gainean. Gelditzeko debekuaren seinalea duten tokietan. Garraio publikoarentzat erreserbatutako lerroetan eta, orokorrean, ibilgailuen nahiz oinezkoen joan-etorria larriki trabatzen den tokietan.

f) Txartela eskuratu zen herritik kanpo aparkatzen denean, herri horretan ezarritako arauak beteko dira.

g) Edozein arrazoi dela medio, txartela erabiltzeari utzi behar bazaio, eskuratutako Udalean itzuli beharko da, arrazoiak adierazita.

h) Txartela galdu edo norbaitek ebatsiz gero, Udalari eman beharko zaio horren berri.

5. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

Arau-hauste administratiboak dira:

5.1. Txartela lortzeko aurkezten diren datu, ziurtagiri edo bertzelakoak faltsutzea, eta txartela lortzea eragotziko luketenak gordetzea.

5.2. Orobat, txartelak kontzesio administratiborik gabe erabiltzea edo bertze baten txartela erabiltzea edo iruzur eginez haien kopiak ateratzea.

Faltsutu dutenak eta txartelaren eskatzaileak izanen dira arau-hausteen erantzuleak.

Arau-hausteak zehatzeko, aldez aurretik zehapen espedientea abiaraziko da eta, ebazpena eman aurretik, beti emanen zaie entzunaldia interesdunei. Espedientea zehapen ahalmenaren erregelamenduan xedatzen denari jarraituz tramitatuko da.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Egun indarrean diren txartelak berritu ahal izateko, ordenantza honetako baldintzak betetzen direla frogatu beharko da.

Iragarkiaren kodea: L0926457

En Mendigorría a 27 de septiembre de 2016.

## *Aldaketa Desgaitasuna eta mugikortasun murriztua duten pertsonei aparkatzeko eta/edo sarrera murriztuko txartelak ematea arautzen duen ordenantzan*

Mendigorriko Udalak, 2016ko urriaren 21ean egin osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea Desgaitasuna eta mugikortasun murriztua duten pertsonei aparkatzeko eta/edo sarrera murriztuko txartelak ematea arautzen duen ordenantzako aldaketa.

Erabakia jendaurrean egon zen hogeita hamar egun baliodunean, iragarkia Herriko Etxeko iragarki oholean eta 2016ko 212. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik, azaroaren 3an, bizilagun edo bidezko interesa zutenek espedientea azter zezaten eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez zitzaten.

Hasiera batean onesteko erabakia behin betikoa bilakatu da, inork ez baitu erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu:

"Aldaketa Desgaitasuna eta mugikortasun murriztua duten pertsonei aparkatzeko eta/edo sarrera murriztuko txartelak ematea arautzen duen ordenantzan.

Lehenbiziko xedapen gehigarria erantsiko zaio, honako hau:

"Posible izanen da desgaitasuna duten pertsonendako baimen bat ematea, Mendigorriko eskolen eremu murriztuan sartzeko soilik baliatu ahal dena, seme-alaba adingabeak eskolara laguntzeko moduan mugitzea galarazten dien minusbaliotasuna egiaztatzen duten interesdunei, baldin eta txartel arrunta lortzeko bezainbesteko minusbaliotasunik egiaztatzerik ez badute.

Baimen hori 3 hilabetean behin berritzen ahalko da."

Mendigorrian, 2016ko abenduaren 22an.–Alkate udalburua, Iosu Arbizu Colomo.

Iragarkiaren kodea: L1614786